

Haize hegoa, gau epela...

Askok jakingo dozue abesti horren jarraipena....geuk be gure I. Hego Haixe kantu-bazkariak jarraipena izan dagian nahiko geunke, behin eginda gorputzak beste bat eskatzen deuskuleko, menpekotasune izango ete?

Hiru lagun folklerezale izenda, alkartu eta abesteari ekiten geuntsenez, deskubrimendu bat izen zan Dantxarineako kantu-bazkaria. Aurretik sarrerak lortzeko saiakerak eginda geunkazan eta Angel Mariezkurrena antolatzaileak, bizkaitar batzuk ekinean ebizela ikusita, iaz lekua egin euskun 400 pertsonen artean, eta eszenatokian aurre-aurrean gainera, geuk dana ondo ikusteko moduan. Orduantxe berotu jakun burua.

Ez dakienentzako hona hemen datu bat, Dantxarinea Urdazubi herriko auzo bat da, iparraldeaz muga-mugan dagoena, eta bertan kantu-bazkari erraldoi bat antolatzen dau Eratsungo Angel Mariezkurrenak. Seguruenik zuotariko askok telebistan ikusiko zenduen. Hain da oihartzun zabala honek hartu dauana, urtero mila lagun baino gehiagori ezezkoa esan behar izaten deusola, min handiz, 400entzako lekua dagoalako. Berarekin batera musikari nekaezinak, jator lako umilak, daroaz: Aitor Ibarra “Jalisko” sunbilarra tronpetagaz, Francisco Santxotena akordeoilari Iruritarra, Doneztebeko Alberto Zunzarren abeslari paregabea eta Angel bera Eratsundik, azken urteotan horrelako ekitaldiak antolatzen berakatza baino finago aritzen dana.

Hortik aurrera eurekin harremanetan hasi eta behin baino sarriago aipatu geuntsen, eurek, musikariak, Markina-Xemeinera ekarteko gogoia geunkala. Hasiera-hasieratik prestu eta umil agertu ziran, agenda betea euki arren.

Txirrika-txirrika idea zana gorpuzten joan zan eta izena be ipini geuntsen. Hego-haixe lez bateatu gendun ekitaldi hau, gustora baino gustorago egoten garelako kanpoan giro dagoanean. Bestetik, “hego” berba, gu ameslari samarrak izanda hegoak astindu eta hegan egitea gustuko dogulako; entzuna dogu iparraldean “ifar haizea” deitzen den musika-ekitaldiren bat egiten dela eta geuk ere geure nortasuna erantsi nahi geuntsen. Horretaz aparte, mugaz bestalde “aire” hitza erabiltzen da musika adierazteko. Eta azkenik, zoro ukitua ere badaukagula aitortzen dogu, horrelako burutapenak jatorkuzanean.

Ez garenez bakarrak, zapatuan 91 lagun bildu ginen Markina-Xemeinen, baina Euskal Herriko txoko askotako jente jatorra buztartuz. Hasteko kontzejupean batu ginen kantu-liburuak banatu eta tabernarik taberna, eztarria bustiz, ekin geuntsen abotsa berotzeari.

Lehenengo urtea izanda gauza batzuk zelan egin ez genekian arren, jende askoren auzolanak erreztu euskuzan gauzak: Pedro sukaldari aritua eta langilea geneukan jantokia ondo baino hobeto ezagutzen ebana, musikarien jarduna eta profesionaltasuna ikusia geneukan aurretik...eta laguntzeko prest izaten diren Maite eta Iñaki Sainz izan genduazan zerbitzari lanetan, eskerrak eurei geure ardura eta lana asko erreztu zan.

Lehenengoa bai, baina azkena ez izatea espero dogu, aurtengoa errepikatzeko aukera eukitea izango litzateke saria. Horregatik eskerrik beroenak emon nahi deusueguz etorri zineten danoi; SK8 Diseinuari, gure ideia paperen jarten asmatu dabelako eta euskerazko komunikabideei, haizea lez zabaldu dabelako; Nafarroako musikariei eta Angeli euren agendan tartetxo bat egiteagatik; Markina-Xemeingo bandako zuzendari den Gari Salcedori ukeleleagaz hainbeste jenderen aurrean ausartzeagatik; Elene Ansolari, hain erretz esan euskuleko holako jendetzaren aurrean aureskua dantzan egingo ebala eta hain fin aritzeagatik; Argia Santamaria eta Itsaso Gonzalezi, hain eskuzabal agertzeagatik, bagenekien euren abotsek askoren bihotza hunkituko ebela; Mirari Azkune trikitilariari, beti bezain alai eta jator, musikariekin bat egin eta konplizitate hori erakusteagatik;

Emeki koralari, hain emeki abestu eta gurekin elkar banatzeagatik; mikrofonoa luzatu eta hain natural erantzun zenduenoi...eta batez ere, eta bereziki, Markina-Xemeingo udalari gure ekitaldi honen barri emon bezain laster baiezko borobila emotearren, bera barik ezin izango zelako hain modu egokian bideratu txartelaren salneurria.

Amaitu baino lehen aipamen bat egin nahi geunkio Irati Markuerkiagari, tartean eta saltsan geurekin ibiltzen dalako, baina oraingoan ezin izan dau gure artean egon. Horregatik berari eskaintzen deusogu lortu doguna, badakigu hurrengoan ez deuskula “txarritxen” egingo.

Eskerrik asko bihotzez denoi, hain errez eginaraztearren gure lana! Datorren urtean alkartzeko asmoz, eta gogoz geratu zaretenoi etortzeko gonbita egiten deusuegu. Kantatzeko zaletasunak batzen gaituelako eta hego-haizeak muga danak ezabatzen deuskuzalako....ZORIXONAK DANOI!

Lorea Sainz Zelaia eta Amaia Ezenarro Arrate
Bi kantuzale.